

2017/03/28an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 28/03/2017.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
 Maite Zubia Atxaga  
 Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
 Maite Uribe Beristain  
 Aitor Zubizarreta Alegria  
 Aintzane Agiriano Errasti  
 Edorta Barandiaran Garcia  
 Nestor Arana Arexolaleiba  
 Rafael Bernal Gato  
 Joseba Iñaki Kerejeta

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko martxoaren 28an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de marzo de 2017, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2017-01-24 eta 2017-02-21.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko martxoaren 23ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

## **3.- DORLETAKO 13. ZENBAKIKO ETXEJABEEK EGINDAKO HOBARI ESKAERA.**

Eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean % 90eko hobaria aitortzeko eskaera egin dute Dorleta 13.eko jabekideek 2017ko otsailaren 17an.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga arautzen duen udal ordenantzan ondorengo hobaria jasotzen da:

*5.3.3.5. Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berriaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzekin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordezkari berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordezkari eraiki).*

*Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hoberiari onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:*

*Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.*

*Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.*

*Aukera guztien artean, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.*

*Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa izan beharko da.*

*Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikiak izango dira kalteak.*

Udal zerbitzu teknikoek 2017ko martxoaren 21ean egindako txostenaren arabera, jarritako igogailuak ordenantzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Dorleta 13ko jabekideei % 90eko hobaria ematea eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean.

**4.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ZIGORRAK.**

**4.1.- OSCAR FLORES MENA JAUNAREN AURKA HASITAKO ESPEDIENTEA.**

Oscar Flores Mena jaunaren aurkako zigor espedientea bideratu da ondorengo egitateengatik:

1. Oscar Flores Mena jauna STAFFORDSHIRE BULL TERRIER arrazako txakur baten jabe da.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko I eranskinaren arabera, STAFFORDSHIRE BULL TERRIERRA arriskutsuak izan daitezkeen arrazen zerrendan dago.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.1 artikulua ezartzen du arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroan — txakurra erroldatuta dagoen udalerrikoan— erregistratu behar dutela txakurra.
4. Aipatutako txakurra ez dago erroldatuta arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal honetako erroldan.

Egitate horiek Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako arau-hauste larriak dira.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legeak 300 €-tik 2.400 € arteko isuna aurreikusten du arau-hauste larrientzat.

Zigor espedientea izapidetzeko erabakia eta erabaki proposamena jakinarazita, interesdunak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientetik ondorioztatzen da Oscar Flores Mena jaunak egin duela egozten zaion arau-haustea, bera baita STAFFORDSHIRE BULL TERRIER arrazako txakurraren jabea eta erantzulea.

Txostenean deskribatutako gertaerak ez direnez delitutzat edo faltatzat jotzen, ez da bidezkoa gertaeren berri ematea zigor jurisdikzioari.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 43. artikuluan eta animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 31. eta 32. artikuluen arabera, eta espedientegilearen proposamenarekin bat eginez, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Oscar Flores Mena jaunari 300 euroko zigorra jartzea Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako arau-hauste administratibo larria egiteagatik.

**BIGARRENA.-** Ezarritako zigorra ordaintzeko gehienez ere hilabeteko epea izango da erabaki hau jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau eta berorren aurka jar daitezkeen errekursoak jakinaraztea zigortuari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

#### **4.1.- IÑIGO OLAZABAL CERRILLO JAUNAREN AURKA HASITAKO ESPEDIENTEA.**

Iñigo Olazabal Cerrillo jaunaren aurkako zigor espedientea bideratu da ondorengo egitateengatik:

1. Iñigo Olazabal Cerrillo jauna STAFFORDSHIRE BULL TERRIER arrazako txakur baten jabe da.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko I eranskinaren arabera, STAFFORDSHIRE BULL TERRIERRA arriskutsuak izan daitezkeen arrazen zerrendan dago.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.1 artikulua ezartzen du arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroan — txakurra erroldatuta dagoen udalerrikoan— erregistratu behar dutela txakurra.
4. Aipatutako txakurra ez dago erroldatuta arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal honetako erroldan.

Egitate horiek Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako arau-hauste larriak dira.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legeak 300 €-tik 2.400 € arteko isuna aurreikusten du arau-hauste larrientzat.

Zigor espedientea izapidetzeko erabakia eta erabaki proposamena jakinarazita, interesdunak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientetik ondorioztatzen da Iñigo Olazabal Cerrillo jaunak egin duela egozten zaion arau-haustea, bera baita STAFFORDSHIRE BULL TERRIER arrazako 724098100775171 identifikazio zenbakidun txakurraren jabea eta erantzulea.

Txostenean deskribatutako gertaerak ez direnez delitutzat edo faltatzat jotzen, ez da bidezkoa gertaeren berri ematea zigor jurisdikzioari.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 43. artikulua eta animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 31. eta 32. artikuluen arabera, eta espedientegilearen proposamenarekin bat eginez, Udaltzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Iñigo Olazabal Cerrillo jaunari 300 euroko zigorra jartzea Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako arau-hauste administratibo larria egiteagatik.

**BIGARRENA.-** Ezarritako zigorra ordaintzeko gehienez ere hilabeteko epea izango da erabaki hau jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau eta berorren aurka jar daitezkeen errekursoak jakinaraztea zigortuari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

#### **5.- ROSA LASAGABASTER ARMENDARIZ ANDREAK JARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEKO ESKAERA.**

ROSA LASAGABASTER ARMENDARIZ andreak abala jarri zuen 2013ko otsailaren 13an Eskoriatzan kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua emateko Udaltzarrak 2013ko otsailaren 13an esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko zituenaren berme gisa.

Kontratuaren indarraldia amaituta, ROSA LASAGABASTER ARMENDARIZ andreak abal horren kitapena baimentzea eskatu du.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udaltzarkide guztiek alde bozkatuta, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:

1. **Lehenengoa.-** KUTXABANK S.A. enpresak ROSA LASAGABASTER ARMENDARIZ andrearen alde jarritako 3.502,40 euroko abala kitzatzeko baimena ematea. Abal hori Eskoriatzan kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua

emateko kontratutik sortutako betebeharrak zuzen betetzearen berme gisa jarri zen.

2. **Bigarrena.-** Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

## **6.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

2014ko abenduaren 9an egindako Udalbatzarrak erabaki zuen alde batetik, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko kontratua GIZADI ELKARTEARI esleitzea prezio honetan: 19,26 €/orduak astegunetan eta 23,18 €/orduak jaiegunetan, gehi BEZari dagozkion 0 euro; eta bestetik, 162.288 euroko gastua onartzea, hori izanik zerbitzuaren kostua 2015eko ekitaldirako.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikuluaen arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du komenigarri ikusten duela kontratua urtebeterako luzatzea, izan ere, GIZADI ELKARTEAK emandako zerbitzuak beharrezkoak dira etxez etxeke zerbitzuaren funtzionamendu onerako, Eskoriatzako Udalak ez baitu langilerik lan horiek egin ditzakeenik.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikuluaen arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ETXEZ ETXEKO zerbitzua emateko kontratua urtebetez luzatzea, 2017ko urtarrilaren 1etik hasitako eraginarekin, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Kontratua arautzen duen baldintza agirian berariaz jasota dago kontratua luzatuz gero prezioak berraztertzeke erabili beharreko formula.

Formula horren arabera, kontratuaren prezioa luzapeneko urterako honako hau izango da: 19,83 €/orduak (BEZ barne) astegunetan eta 23,75 €/orduak jaiegunetan.

**HIRUGARRENA.-** Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea. Gastu hori 127.823,06 eurokoa da, eta 2017ko udal aurrekontuko 0300.227.231.10.19 partidaren kargura egingo da.

**18:35ean Nestor Arana sartu da bilkurara.**

**7.- SAN PEDRO 16. ETA 17. ZENBAKIJAKO JABEKIDEEEN KOMUNITATEAREN  
ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SAN  
PEDRO 16. ETA 17. ZENBAKIJAKO ARKUPETAN IRISGARRITASUN OBRAK  
EGITEKO.**

San Pedro 16. eta 17. zenbakietako jabekideen komunitateak finka bien arkupetan irisgarritasun, hobekuntza eta egokitze lanak egin nahi ditu.

Konpondu beharreko guneak erabilera publikorako zortasundun orube pribatu izaera du. Eskoriatzan ohiko den guneetako bat da, irekia eta erabilera publikokoa, beste espazio publiko edota auzoetara joateko pasabide bezala erabiltzen dena. San Pedro 16. eta 17. zenbakietako kasuan, gune hori San Pedro eta Santa Ana auzoak lotzen dituen pasabidea da.

Aipatutako arkupeen inguruko urbanizazioa desnibel handikoa da eraikitako espazioari zerbitzua eman ahal izateko, eta irisgarritasunari buruzko egungo araudia betetzen ez duten eskailera eta arrapalak ditu.

Eskoriatzako Udalaren lehentasunezko jardueretako bat da oinezkoentzako bide, espaloi eta gainerakoetan irisgarritasuna hobetzea, espazio publikoetan egin beharrekoa eta espazio pribatuetan errazte eta sustatu behar duena.

Hori guztiori, eta zoladurak denborarengatik izandako narriadura eta bertako beste elementu batzuk (parterre-lorategia, burdin lanak...) nabarmen hondatuta daudela kontuan izanik, finka horietako jabekideen komunitateak horiek konpontzeko jarduera egitea ere eskatzen du.

Obrak egiteko ekonomia, azkartasun eta eraginkortasun arrazoiengatik, San Pedro 16. eta 17. zenbakietako jabekideen komunitateak, 2016ko abenduaren 18an egindako batzar orokorrean honako hau erabaki zuen:

*a) Finka bien eskapeak hobetzeko eta egokitzeko obrak egitea Ramel enpresak 2016ko uztailaren 5ean aurkeztutako 92-2/2016 zenbakidun aurrekontuaren arabera.*

*b) Eskoriatzako Udalari eskatzea obra horiek kontratatu eta 2017ko ekitaldian egin ditzala, eta Udalak berak irisgarritasuna hobetzeko egin nahi dituen obrekin koordina ditzala.*

c) *Gastuen dagokien proportzioa finantzatzeko konpromisoa hartzea eta alde biek adostutako epeetan ordaintzea.*

Negoiazioen ondoren jabekideek egin beharreko ekarpenari buruzko akordioa lortu da.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Finkaren arkupepetako espazioa -erabilera publikoko gune pribatu irekia izan eta oinezkoentzako auzoko urbanizazioan integratuta egoteagatik- hobetzeko Eskoriatzako Udalaren eta San Pedro 16. eta 17. zenbakietako jabekideen komunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea.

**Bigarrena.-** Obrak finantzatzeko jabekideen komunitateak jarri beharreko dirua 33.166,28 euro izatea. Ekarpen hori ondoren adieraziko diren epeetan egingo da kontabilitate-mugimendu bakarrean:

- Lehenengo zatia: dagokiola aurreikusitako zenbateko osoaren % 50a hitzarmena sinatu ondorengo 15 egunetan. Ordainketa hori egitea ezinbesteko baldintza izango da Udalak obrak esleitu ditzan.
- Bigarren zatia: benetan dagokion zenbatekoaren gainerakoa, 15 eguneko epean Udalak obrak onartu eta obrak amaitu direla komunitateari jakinarazten dionetik kontatzen hasita.

**Hirugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordeztuz sinatzeko.

## **8.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Udalbatzarrak 2014ko abenduaren 9an hartutako erabakiz COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEri esleitu zitzaion ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA urteko prezio honetan derrigorrezko zerbitzuengatik: 144.539,12 euro gehi %10eko BEZari dagozkion 14.453,91 euro. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du komenigarri ikusten duela kontratua aipatutako eperako luzatzea, izan ere, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO

**2017/03/ 28**

**Osoko Bilkura**

Pleno ordinario



SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEK emandako zerbitzuak beharrezkoak dira kale garbiketa zerbitzuaren funtzionamendu onerako, Eskoriatzako Udalak ez baitu langilerik lan horiek egin ditzakeenik.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Hirigintza eta Mugikortasun Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEri ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako Zerbitzuaren kontratua urtebetez luzatzea, 2017ko urtarrilaren 1etik hasitako eraginarekin, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Kontratua arautzen duen baldintza agirian berariaz jasota dago kontratua luzatuz gero prezioak berraztertze erabili beharreko formula. Formula horren arabera, kontratuaren prezioa luzapen urterako 161.155,32 eurokoa izango da.

**HIRUGARRENA.-** Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea. Gastu hori 160.794,94 eurokoa da, eta 2017ko udal aurrekontuko 0100.227.163.00.01 partidaren kargura egingo da, eta gainerakoa, 2018ko aurrekontuaren kargura.

Aurreko erabakiak hartuta, batzorde informatzailean egin zen bezala, zerbitzua herriko pertsonak edo enpresek eman ahal izateko dauden aukera legalak Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzailean aztertu eta eztabaidatzeko konpromisoa hartzea erabaki da. Azterketa hori ahalik eta azkarren egingo da, eta edozein kasutan, bigarren luzapena eztabaidatu eta bozkatu baino lehen.

#### **9.- UDALAK EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEA EGITEKO POLITIKA BAT GARATZEKO ERABAKI PROPOSAMENA.**

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Erosketa eta Kontratazio Berdearen aldeko Udal Politika garatzea, baliabide naturalen kudeaketa arrazionalagoa eta ingurumen aldetik egokiagoa lortzeko lagungarri izan dadin. Ondorengo hauek hartuko ditu kontuan:

- 1) Pixkanaka, ingurumen irizpideak sartuz joatea administrazioko sailek eta mendeko organismoek produktuak erosi edo zerbitzuak kontratatu behar dituztenerako.
- 2) Erosketa eta Kontratazio Berde Publiko Politikan aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko lan-talde bat sortzea.
- 3) Laneko Plan bat idaztea ondorengo hauek guztiak finkatuko dituen: lehentasunak, neur daitezkeen helburuak, jarraipen adierazleak eta helburuak lortu diren ala ez egiaztatzeako sistemak.
- 4) Barnerako Komunikazio Plan bat prestatzea, Udalean ari diren pertsonentzat, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde Politikaren berri emateko, eta administrazioaren jardunean ingurumenarekin ohitura eta praktika onak txertatzea ahalbidetuko du.
- 5) Kanpoko Komunikazio Estrategia bat prestatzea hornitzaileentzat eta enpresentzat, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde Politikaren helburuak eta xedeak lortzeko lagungarri izan dadin.
- 6) Konpromisoa hartzea energiaren ikuspuntutik efizienteen diren teknologiak erabiltzeko, bai errehabilitazio edo eraberritzeko obretan, bai instalazio, ekipamendu edo ibilgailuen mantentze-lanetan; eta orokorrean, horietan guztietan mantentze-lanak ingurumen-ikuspuntutik egitea (energia berriztagarriak erabili, hondakinak kudeatu, ura aurrezteko sistemak, efizientzia energetikoa...).
- 7) Ingurumen-irizpideak erabiltzeko konpromisoa hartzea, bai laguntza, bai obrak edo zerbitzuak kontratatzeako lehiaketak adjudikatzeko onartzen diren baldintza administratiboen pleguetan, horrenbestez haiek burutzean ingurumen-alderdiak txertatuak izan daitezen (berotegi-efektuko gasen emariak murriztu, hondakin gutxiago sortu, material birziklatuak erabili, etab); eta era berean, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei begira ere, baloratu beharreko merituen artean egon dadila ingurumen-kudeaketarako sistemak edukitzea (EMAS, ISO-14000).
- 8) Hezkuntza-kanpainak garatzea, "erosketa berdea"ren aldeko sentsibilizazioa indartzeko asmoz, orokorrean herritarrek erosketak egiterakoan ere iraunkortasuna sustatu dadin. "

**10- HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIEI BURUZKO HASIERA BATEKO ERABAKIA ALDATZEA.**

Udalbatzarrak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, "hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak" hasiera batean onartzea erabaki zuen. Oinarri horiek jendaurrean

jarri ziren eta horretarako iragarkia argitaratu zen 2017ko martxoaren 2an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean.

Jendaurrean egoteko tramite denboran, hasiera batean onartutako oinarrien bi puntu aldatzea proposatu du Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak.

Proposamena egiteko izandako arrazoiak ikusi eta aztertuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Ondoren esango diren bezala aldatzea Udalbatzarrak, otsailaren 21ean egindako bilkuran, hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko hasiera batean onartutako oinarriak.

1.- Hizkuntza Irizpidea txertatzea:

- Laguntza honen onuradunak jarduera iragartzeko lokalaren kanpoaldean jarriko duen errotulua gutxienez euskaraz egon beharko da. Gainera, eskarazko errotulazioa eta irudi korporatiboa jartzen duenak Eskoriatzako Udalak urtero eman ohi duen diru laguntza jasotzeko aukera izango du, beti ere dagokion diru laguntza deialdian zehaztutako prozedura betez. Horrez gain, 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, VII. kapituluaren xedatutako "Hizkuntza eskubideak" bete beharko ditu eta herritar bakoitzak zerbitzua euskaraz nahiz gazteleraz jasotzeko duen eskubidea bermatu beharko du. Hori betetzeko Eskoriatzako Udal euskara zerbitzuak eskaintzen duen itzulpen/zuzenketa zerbitzua erabili ahal izango du.

- Irizpide hori Onuradunen Baldintzak atalean edo Onuradunen Betebeharrak atalean sartu beharrekoa dela uste du

2.- "Onuradunak" atalean, lokalek eta jarduerak bete beharreko baldintzetako c) puntuan, epea aldatzea eta 6 hilabete beharrean 5 jartzea.

**Bigarrena.-** Aldatutako oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritiz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

## **11.- GALDE-ESKEAK.**

### **11.1. Aranburuzabalako autobus geltokia**

Aranburuzabalako autobus geltokiko markesina kenduta dagoela adierazi ondoren, Aitor Zubizarretak galdetu du ea berriz jartzeko asmorik dagoen.

Josu Ezkurdiak erantzun dio kotxe batek markesina jo zuenean eragindako kalteak ikusita, konpontzeko aukera aztertu zela, baina, konponketaren kostea oso handia zenez, kristalezko eta metalezko berri bat jartzea erabaki dela, eta datorren hilabetean jarrita egotea espero dutela.

#### 11.2. Debagoieneko Mankomunitatean egiten diren bileren aktak.

Udalaren eskumeneko kontu asko Mankomunitatean erabakitzen direla, eta bertako aktak publikoak direla adierazi ondoren, Aitorrek eskatu du guztion eskura jar daitezela Debagoienako Mankomunitatean egiten diren bileren aktak.

Josuk erantzun dio bere eskaeraren berri emango zaiela Mankomunitateko teknikariei, interesdun guztiek aktak jaso ahal izateko sistema bat jar dezaten.

#### 11.3.- Erraustegia

Erraustegiari buruz prentsan denetarik esaten ari direla adierazi ondoren (inbertsio handi bat dela, kontsortzioko udalek ordaindu beharko dutela...), Aitor Zubizarretak honako hau esan du: *“gaiak arduratzen gaitu, eta horrek Eskoriatzarentzako izango duen kostuaren berri eman dadila nahi dugu, eta baita kostu hori gastu arruntzat edo inbertsiotzat jasoko den”*. Berriz ere esan du interesgarria litzatekeela jakitea zer ondorio izango dituen Eskoriatzarentzat hurrengo 30 urteetan.

Informazio hori eskatu ondoren, esan du duela hiru aste Mankomunitateak hondakinei buruzko datuak jakinarazi zituela; eta emandako datu horien arabera, erabiltzaileek ondo ari dira sistema erabiltzen, emaitzak onak dira... JARRAITU DU: “Emitza horiek Gipuzkoako gainerako lekuetan lortuz gero, kolokan jarriko litzateke erraustegiaren gaur egungo planifikazioa. Noski zerbait behar dela! baina, beharbada ez 500 milioiko inbertsioko zerbait. Horrek arduratu egiten gaitu, eta maiatzeko osoko bilkuran horri buruz hitz egin eta eztabaidatzea gustatuko litzaziguke, aztertzea eta zer nolako aukerak, alternatibak dauden ikustea...; ni ez naiz egongo hemendik 30 urtera, baina, egongo direnak hipotekatuta egongo dira. Ondorioz, honako hau: emaitzak onak dira, sistema Gipuzkoara zabaldu beharko litzateke, eta egin beharreko ekarpenak nola eragingo ote dion Eskoriatzari.

Josuk: nola finantzatu behar den eta Eskoriatzak nola ordaindu behar duen dagokion ekarpena? bada, Aldundiak edo Hondakinen Kontsortzioak egiten dituen beste azpiegitura batzuk bezala, tasa baten bidez. BILDU agintean egon zenean Epelen egitea erabaki zen eta arazo teknikoengatik geldirik dagoen konpostatze planta tasa baten bidez ordaindu beharko den bezala. Hala ere, Aldundiaren eskumeneko diren horrelako azpiegituretan, edo kasu honetan, Kontsortzioarenean, eztabaida ez da udaletan edo mankomunitateetan egin behar, Batzar Nagusietan baizik. Ez da udal bakar baten kontua, ez da bakarrik Eskoriatzakoa edo bakarrik Donostiakoa. Ikuspuntu zabalago batez aztertu behar den kontua da, lurralde historikoaren ikuspegitik. Eta, lurralde historikoari eragiten dioten gaiak

aztertzeko leku egokiena Batzar Nagusiak dira. Gure aldetik, esan behar dugu erabateko konfiantza daukagula zerbitzuen ardura duten erakunde publikoetan, hau da, Aldundian, Mankomunitatean eta Kontsortzioan, eta horrela izanda, ez dugu inolako arazorik beraien planteamenduak sinisteko eta defendatzeko; eta bereziki, datuen arabera gauzak ondo egiten ari direnean, eta ez aurreko agintaldian bezala, gaizki egin baitziren. Horrela, guk ez dugu planteatzen gai horiek herri mailan eztabaidatzerik, horrek ez duelako zentzurik. Eta, esan dudan bezala, Gipuzkoa mailan eztabaidatu beharreko gai bat da. Eta eztabaida hori egin da Batzar Nagusietan, talde politiko bakoitzak izan du aukera eta jakinarazi du zein den bere jarrera errespetu osoz, eta han dago adierazita zein den gipuzkoarren borondatea, eta hori da gai horietaz hitz egiteko foro egokiena.

Aitor: Bai. Baina, azkenean, eskoriatzar bakoitzak ordaindu egin beharko du. Kontua da eskoriatzarrak ahalegin bat egiten ari direla hondakinak bereizten, eta beste gipuzkoar batzuk, ez. Eta hor dago kooperazioaren kontua... Herri batzuk bai, eta zigortu egin behar ditugu? Edo, zigortu egingo gaituzte gauzak ondo egin arren? Uste dugu badugula zer esanik. Ados egon naiteke zuk esandakoarekin, hau da, aurreko agintaldian gauza batzuk ez zirela ondo egin, ados, baina, iritsi da alderdien interesak albo batera laga eta bakarrik herritarren interesen alde egiteko eta errealitatea zein den, eta ez zenbaki teorikoak, ikusteko unea.

Hasiera batean planteatu zen errausgailua gaindimentsionatuta zegoen, eta gauza bera gerta daiteke orain planteatzen denarekin eskualde honetako datuak Gipuzkoako beste herri batzuetan ematen badira. Ez dakit zergatik ezin den herrian hitz egin gai horretaz eta zergatik ez zaie berriz herritarrei galdetzen horri buruz, lehen galdetu bazitzaien bilketa sistemaren gainean. Uste dut orain erraz eman daitekeela hurrengo urrats bat: jendeari galdetzea eta eurekin hitz egitea.

Josu: ez dut nahi berriz errepikatzerik lehen esandakoa. Bakarrik bi gauza gehituko ditut. Negozio txarra egiten ari gara hondakinen kontu honetan, diru eta denbora pila bat galtzen ari garelako BILDUK aurreko agintaldian gauzak gaizki egin zituelako. Orain harritzen nau, gai honi buruzko BILDUren historia ikusita, errausgailuari buruzko kontsulta orain egin nahi izatea. Gipuzkoarrok nekatuta gaude hondakinen gaiaz, azken batean ikuspuntu tekniko batetik kudeatu behar den kontua denean, ura, argindarra eta beste zerbitzu publikoak bezala. BILDUK, ezagutzen ez ditudan arrazoiengatik, hondakinen gaiarekin bueltaka dabil, baita agintaldi honetan ere, eta gu ez gaude prest gai honekin denbora galtzeko. Esan dudan bezala, konfiantza osoa daukagu Gipuzkoako erakunde publikoetan, badakigu gauzak ondo egingo dituztela, gipuzkoarren alde egingo dituztela, eta BILDUK gai horrekin jarraitu nahi badu, ez gaitu bidelagun izango. Berriz, emaitza onei buruz, kontsultari buruz, erabat serio jarriko naiz. Lotsa ematen dit BILDU bezalako talde batek horrelakoak eskatzea, aurreko agintaldian, kontsulta eskatzen zuen jendez betetako osoko bilkura batean, Ezker Batuako zinegotziarekin batera kontsultaren aurka bozkatu zuenean; eta agintaldi honetan, oraingoan IRABAZIko zinegotziarekin batera, kontsulta bat zaputzen saiatu zenean mozio baten bidez. BILDUK ezin digu eskatu parte hartze neurri gehiago, guk bete dugunean agindu genuen kontsulta. Horregatik, ez duzue inolako sinesgarritasunik horrelako planteamenduak egiten dituzuenean. Eta amaitzeko, esan behar dut, zuk esan

**2017/03/ 28**

**Osoko Bilkura**

Pleno ordinario

bezala, gaikako bilketa datuak oso onak badira ere eskualde honetan, urtean 200 kamioikada hondakin ez birziklagarri sortzen direla, eta nahiz eta hemengo sistema Gipuzkoa osoan ezarri, alde batetik bestera ibiliko diren milaka kamioi hondakin ez birziklagarri kalkulatu behar direla. Orain arte BILDUK egin duena beste alde batera begiratzea izan da, hondakindegietara bidali edo kanpora eraman. Ez duzue sinesgarritasunik gai honetan.

Aitor: uste dut gauzei buelta eman diezula. Agintaldi honetan ez geunden kontsultaren aurka, mozioa horrekin gauzak bere lekuan uztea nahi genuen bakarrik. Mehatxuak egon zirelako; egon ziren, bai. Eta momentu honetan ez gara hondakinez bakarrik ari, baita osasunaz ere. Eta mugimendua ez da bakarrik BILDUrena, askoz ere zabalagoa da. Hor ari diren mediku guztiak, hezitzaileak, EH BILDU dira? Jende asko dago ez dena EH BILDUKoa eta beste ideologia politiko batzuekin identifikatzen dena. Eta osasunaz ari gara, ez hondakinak modu batera edo bestera biltzeaz, osasunaz ari gara; eta ezin da horretaz hitz egin? Ezin da kontsulta bat egin? Nik uste dut baietz. Eta historia egiten badugu, Eskoriatzan nor utzi zuen mahaia denok ados jarri ondoren? Eta oraindik ez ginen sistemaz hitz egiten ari. Historia historia da, pasatu da. Hitz egin dezagun orain, gaia serioa da. Hemengo jendeak erakutsi du gure sistema erabilgarria dela, eta zergatik ez Donostian?

Josuk berriz ere esan du bere ustez EH BILDUK sinisgarritasun gutxi duela gai honetan, eta bere taldea ez dagoela prest denbora galtzeko gai horretan eskumenak dituzten erakundeengan konfiantza osoa dutenean.

Rafa: niri nahigabetu egiten didate mota horretako eztabaidek, nahiz eta hau ez izan gai hori erabaki behar den lekua. Horrealkoak entzuten dudanean, ikusten dut hondakinen gaia erabili egiten dela, eta niretzat hondakinak oso arazo larria dira. Ez da bakarrik Eskoriatzari eragiten dion arazoa, planeta osoari baizik. Hondakinen kudeaketa ondo kudeatu beharreko gaia da. European edo Finlandian erraustegiak egin izanak ez du esan nahi eredu egokiena denik. Bizitzaren beste hainbat kontutan gertatzen den bezala, akatsak egiten direlako; Finlandian martxan egoteagatik hori dela irtenbidea esatea, bada, zalantzan jartzen dut. Uste dut eztabaida politikoa izan beharrean tekniko izan behar dela, profesionalena izan behar dela, gizartearena, guztion artean konpondu beharreko arazoa delako, izan ere, hondakinak guztiok sortzen ditugu. Egoki kudeatu behar dira. Erraustegia erabiltzen den teknika bat da, egokiena da? Baliteke, baina, baliteke ere ez izatea. Hor dago eztabaida. Hori izan behar da eztabaidaren gaia.

Josu: ados nago esan duzun guztiarekin, baina, Gipuzkoan arazo bat dugu: zer egin hondakinekin? BILDUK 4 urte galdu zituen, eta gaur egun lurralde historikoak ez du inolako instalaziorik hondakinen zikloa ixteko. Eta tristea da esatea, baina gaur egun Epeleko instalazioak ez du funtzionatzen BILDUK gaizki egin zuelako, ez dugu beste aukerarik gure

hondakinentzako gure lurraldetik kanpo eramaterik baino. Berriz ere esango dut gure erakundeengan eta gure teknikariengan konfiantza dudala. Eta European erraustegiak daudela, ba, noski daudela! Eta hondakinen zikloa ixteko errauskailuak jartzea gomendatzen du Europak.

#### 11.4.- KORRIKA

Alkateak esan du Udalak kilometro bat erosi duela, eta bertaratutako guztiak gonbidatu ditu Korrikan parte hartzera. BILDU, oposizioko talde bezala, Udalak dituen bi dortsaletako bat eramatera gonbidatu du.

Edorta Barandiaranek erantzun dio oposizioko taldeak bere kilometroa erositako duela.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

#### **1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 24-01-2017 y 21-02-2017.

#### **2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 23 de marzo de 2017 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

#### **3.- SOLICITUD DE BONIFICACIÓN CURSADA POR COPROPIETARIOS DE DORLETA N.º 13.**

Los copropietarios de Dorleta N.º 13 han solicitado con fecha 15 de febrero de 2017 que se les reconozca una bonificación del 90% en el ICIO devengado por el permiso concedido para instalar un ascensor en el edificio.

En la ordenanza municipal que regula el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras se contempla la siguiente bonificación:

*5.3.3.5 Gozarán de una bonificación del 90% de la cuota las obras consistentes en la instalación de ascensores en edificios de dos ó mas plantas cuyo uso*

**2017/03/ 28**

**Osoko Bilkura**

Pleno ordinario

*principal sea el de vivienda y la instalación del mismo se adecue a las condiciones exigidas en la ordenanza municipal y/o planeamiento municipal aprobado a tal efecto. No tendrán derecho a dicha bonificación las obras de sustitución de ascensores, la instalación de ascensores en edificios de tipología villa familiar o bifamiliar, aislada o adosada y, en general, las actuaciones de instalación de ascensores en edificios de nueva planta (aunque sean sustitución de anteriores) realizadas por los propios promotores y contratistas.*

*Mientras que no se apruebe la ordenanza municipal que se menciona en el párrafo anterior, será el Pleno del Ayuntamiento el órgano competente para resolver sobre la solicitud de bonificación y la concesión de la misma quedará sujeta al cumplimiento de los siguientes requisitos:*

*La instalación del ascensor deberá enmarcarse dentro del edificio.*

*Las obras deberán cumplir las normativas vigentes.*

*La instalación deberá ser entre las posibles alternativas la que en mayor grado mejore la accesibilidad de los ciudadanos a las viviendas del edificio.*

*La instalación deberá ser homogénea con las de los edificios homogéneos del entorno.*

*Deberán ser las mínimas posibles las afecciones a suelo público y a alineaciones.*

Según informe emitido por los servicios técnicos municipales con fecha 21 de marzo de 2017, el ascensor instalado cumple con todos los requisitos exigidos en la ordenanza.

Teniendo en cuenta todo lo mencionado anteriormente, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Conceder a los copropietarios de Dorleta Nº 13º una bonificación del 90% en el ICIO devengado por el permiso concedido para la instalación de un ascensor en el edificio.

